

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

48/2021 Foru Agindua, 2021eko otsailaren 12koa, 2022ko martxoaren 18ra arte luzatzen duena Arabako Lurralde Historikoan arrantza kontinentalaren aprobetxamendua erregulatzen duen araudia, otsailaren 1eko 84/2020 Foru Aginduaren bidez 2020-2021 denboraldirako onetsia

Eusko Jaurlaritzaren 34/1985 Dekretuaren eta Arabako Foru Aldundiaren martxoaren 5eko 884/1985 Dekretuaren bidez, foru aldundiari transferitu zitzaion arrantza kontinentalaren arloko arauak garatzeko eskumena. Ondorioz, Arabako Lurralde Historikoan arrantza kontinentalaren aprobetxamendua arautzen duen araudiak ezartzen duen urteko foru agindua da arrain espezieen aprobetxamendu ordenatua egiteko tresna arautzaile nagusia.

COVID-19ak eragindako krisiaren ondorioz 2020an indarrean egon diren mugikortasun murizketek eragotzi egin dute 2020an arrantza kanpainak garapen normala izatea eta Arabako Arrantzako Lurralde Kontseiluaren urteroko bilera egitea. Horiek horrela, kontseiluaren kideekin adostu da 84/2020 Agindua 2020-2021 kanpainara luzatzea.

Aginduzko txostenak aztertuta, Nekazaritza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onesten duen Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 14/2016 Foru Dekretuak ematen dizkidan eskumenak baliatuz, eta Arabako Foru Aldundiko sailak 2019-2023 legegintzaldirako finkatzen dituen diputatu nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuaren bederatzigarren xedapena aplikatuz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. 2022ko martxoaren 18ra arte luzatzea Arabako Lurralde Historikoan arrantza kontinentalaren aprobetxamenduaren araudi erregulatzaila, martxoaren 3ko 84/2020 Foru Aginduaren bidez 2020-2021 denboraldirako onetsia.

Bigarrena. Foru Agindu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko otsailaren 12a

Nekazaritza Saileko foru diputatua
EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO

Nekazaritza zuzendaria
M^a ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE